itzulpena: Josu Landa

Miguel Hernandez

Munduko
Poesia
Kaierak

Miguel Hernandez

itzulpena: Josu Landa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Miguel Hernandez
© itzulpenarena: Josu Landa
© edizio honena: Susa

2014ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Ingurune aski soil eta xumean hezi zen Miguel Hernandez. 1910ean Orihuelan munduratu zen ahuntzain familia batean. Inguruko ume gehienak ez bezala, hamar urtez eskolatu zen, urte asko orduko lagunei erreparatuz gero, baina aski gutxi gerora lortu zuen maila poetikorako. Batxilergoa jesuitekin hasi zen ikasten eta han ezagutu zuen Jose Ramon Marin Gutierrez, “Ramon Sije” ezizeneko adiskide mina, zeinaren heriotzaren oinazean bere poema sonatueneta-ko bat idatzi zuen: *Ramon Sije-ri elegia*. Ezin izan zuen batxilergoa amaitu aitak ahuntzaintzarako etxean behar omen zuelako, eta halaxe itzuli zen, bere borondatearen kontra, ahuntzak bazkatzera hamabost urte zituela.

1933an argitaratu zen bere lehen poema liburua, *Ilargietan peritu*. Liburuak, antza, ez zuen egileak espero izandako harrera eduki. Federico Garcia Lorcari liburua hor zehar jakitera emateko eskatu ondotik eta honen erantzun hotza zela-eta, bien arteko harremana hautsi zen betirako. 1934an beste poeta handi bat ezagutu zuen, Hernandezen ibilbidean mugarri izan zena: Pablo Neruda. Nerudaren bidez garaiko Madrilgo intelektualitatea ezagutu zuen, tartean Vi-

cente Aleixandre. Hari eskainia da *Viento del pueblo* (*Herriaren haize*) poema-liburua, 36ko Gerra bitartean idatzi zuena. Hernandezen poesiaren aintzakotzea, ordea, aurreko lanari esker etorri zen, 1936ko *El rayo que no cesa* (*Etengabeko tximista*) liburuarekin.

Gerraren eztandarekin errepublikazaleen bandoan izena eman eta komisario politiko eta kultural gisa aritu zen borrokan. Madril faxisten eskuetan erori eta gutxira atxilotuz gero kartzelaz kartzelako gurutze-bide bat bizi izan zuen. Giltzapean idatzi zuen beste poema sonatu bat, *Tipularen sehaska kanta*, Joan Manuel Serratek kantatua aski ezagun egin zena. 1942ko martxoaren 28an zendu zen Hernandez tuberkulosiak jota Alacanteko presondegian.

Hernandezen lehen poesia Luis de Gongoraren eraginpekoa dela diote adituek. Nabariak dira poema horietan, hala sintaxiaren jira eta birak, nola aberastasun lexikoa. Haatik, hori guztia halako ukitu kolokial batekin zipriztintzen du, bere poesia ildo horretako beste hainbat saiakera baino lurtarragoa —zentzu literalean— bihurtzen duena. Etengabe oihartzun egiten duten terminoak dira: kopeta, izerdia, haragia, odola... Neruda eta Aleixandreren eraginpean surrea-

lismoaren bideak ere jorratu zituen nahiz eta inoiz ez oso modu markatu edo programatikoan. Aski ezaguna da bere garai konprometituena, *Viento del Pueblo* poemarioaren garaia. Hernandezen obra osoa poema haietara murriztu izan da maiz, “poeta konprometitua” etiketapean. Aitzitik, Hernandezen amodiozko poemak, esaterako, maila gorenekoak dira halaber. Haren poesiaren beste ezaugarrietako bat lerroen musikaltasuna da, Josu Landaren itzulpenean bereziki nabarmena den alderdia. Egiatan, haren poemetarik ugari izan dira abesti bihurtuak; arestian aipatutako Serratenaz landa, Paco Ibañezen *Andaluces de Jaen* kantua, *Olibazaleak* poeman oinarritua, belarriz belarri ibili izan da urtetan. Musikari berriagoen artean, Silvia Perez Cruz-en *Ramon Sije-ri elegia*ren bertsioa aipa daiteke.

Hernandez Espainiako literaturako 27ko Belaunaldiaren azkeneko katebegitzat jo ohi da, guztien artean gazteena izaki. Taldetik kanpo geratu izan da ez gutxitan ordea. Argigarria da, esate baterako, Gerardo Diegok prestatutako bi antologietatik kanpo geratu izana, zeinak 27ko Belaunaldiaren bilduma kanonikoenetakoak diren.

Belaunaldien aferak afera, baina, gozamen hutsa da Hernandezen lengoaia poetikoaren samurtasunetik dorpetasunera etengabeko jauziak egitea. Gozamen hutsa Alacanteko lurretan hain erroturik dagoen lengoaia hori euskararen lur hezeagoetan irakurtzea.

BEÑAT SARASOLA

Ilargietan peritu IV

Zure pertsonaren bazter onenaz,
non kapulu bihurtu baita zeta,
pisugailuaren orratza denaz,
liraz duzu arimaren kapela.
Ilargitu zinen! doilor bestenaz,
hondarrezko gurpil ardatz zinela,
puntarik punta zure urrea batu
eta bitartean du erdeinatu.

Ilargietan peritu IX

Pikuen mana, esne eta ezti,
argi-euritan naiz, jainko prakadun,
moisesak kantoiz ilehoriz bezti,
israeldar herrian haur premiadun,
zilbor batzarra ez dago garesti;
aingeruak pasio itxuradun,
lehen mailako mendi honetan zehar
hainbeste argi, argi garbi behar.

Ilargietan peritu XXXV

Errautsezko uda etengabeak
larraineko ilargia du zaildu,
ez da bero gorantz den zutabea,
urrez iraupenean dela bildu.
Bat salbamena, bestea urkabea,
bietako nora behar hurbildu?
Oi!, zu bai ilargietan peritu,
onena zein den dezadan argitu.

Ilargietan peritu XXXVI

Kristal eta pinuz jostun azkena;
arrosa beraren neurri berean,
diamante finez itoko ez dena,
janzkia egidazu, prisma betean.
Pisu indarrez da amilduena,
auzo gutxieneko auzunean,
egizu tunela lore menpean,
nire amodioa dadin lurpean.

Pena ongihartua

Ikusantzua duzu begian oliba,
ahomamula zure irri usapala,
bilogoibela elur-haizez bekokira,
zure kuttun-granada da bularzabala.

Muturdin krabelina odolean dena,
ubeldumatxuretan behetik jasmina,
bekainbakarra zure musu-azuzena,
eztarrian ahotsa duzu gozomina.

Ahomamula, bularzabal, ikusantzu,
muturdin, bilogoibel, ubeldumatxura,
bekainbakarra gozominez maite zaitut.

Zure atera nator ni itsuabantzu,
bizitzaren zauria zait ahohantura,
betetzen duen pena pozgarrazten baitut.

[zure ileak dauka uhina lanbide]

Zure ileak dauka uhina lanbide,
itsas haize lanetan aritzen zara zu;
graziaduna izatea zeregina duzu,
zerua izaki zure dohain adibide.

Zure ilea, neskatxa, doalarik hegan,
aztarna jasotzen dut haize beltzarena,
boli itxura eta amarruarena,
zure ileen tenpestan gogo nuke izan.

Beste lanik ez duzu, ederra izatea,
zure esfera bueltan jiraka izanda
nik ez ohi dut festa besterik zuri so.

Zereginik ez daukat, naiz satelitea,
zu oroitzeko lana izaten ez bada.
Kartzelazaina, zaitez amodioz preso!

Biziki maite dudan Josefina handiari

Zure gutunak nire
ardo nahasgarri,
nire bihotza jaki
bakarron egarri.

Inon ez naizenetik
amets besterik ez,
zure gorputzaz eta
itsaso gaziez.

Zokoan zure kartak
ohi ditut bazkatzen,
aterpe eta belartzat
bihotza ematen.

Nahiz maitale-gorpu hau
legokeen lurpean,
idatziko bazenit
neuk ere trukean.
Krabelinen zukuaz
odolik ezean,
maite-hezurren gainean
paperik gabean.

[ez ote du etenik nire tximista honek]

Ez ote du etenik nire tximista honek,
bihotza betetzen dit piztien haserrez,
eta arotz sutegi errabiakorrez,
herdoila hartzen dute metal freskoenek.

Estalaktita muker honek etenik ez?
beti bazkatzen ditu bere adats sendoak
sute zurrunen eta aizto moldekoak,
nire bihotzeranzko marru eta orroez.

Tximista amaiezinak ez dauka etenik:
nigandik jaso zuen bere jatorria
eta nigan gauzatzen du bere sumina.

Harri egoskor hori sortzen da nigandik,
tximista euritsuen hondamen gorria
nigana zuzentzen du gogotik ekina.

[limoi mikatz askoa zenidan jaurtiki]

Limoi mikatz askoa zenidan jaurtiki,
halako esku puru eta berogarriz,
ez baitzen hustu haren muina osagarriz;
aldiz, mikatza nuen dastatu bitxiki.

Kolpe beilegi horrek ninduen biziki
odolez aldarazi sukarraldi larriz,
aurrez egonagatik goxo egonarriz,
titi-gain gogor-luzez baitzidan ausiki.

Zure begi irriaz nintzenez ohartu,
limoizko gertaerak zizuna harildu,
nire zital jaleaz bat ez zetorrena,

alkandoran zitzaidan odola lokartu,
erpin eta distirez penara zen bildu
bular porotsu eta urrezkoa zena.

[xahu-laño zarenez zatzaizkit hilkizun]

Xahu-laño zarenez zatzaizkit hilkizun...
Aitortzen dut, maitea, nauzu erruduna,
musu emate baten lapur bihoztuna,
masaileko lorea xurgatu bainizun.

Masaileko lorea xurgatu bainizun,
loriazko gertari hartako egunaz
gero zure masaila, kezkaz eta astunaz,
hostorik gabe horail lurreratzen zaizu.

Iratxo batek, musu gaizkile harenak,
etengabean dizu jazartzen mazela,
garbiago, beltzago eta handiago.

Eta itzarrik zaude, ardura gorenaz,
nire ahoa zaintzen, arreta itzelaz,
ez ote den grinaren menpeko izango.

[zure ahots doinuaz nauzu gogabera]

Zure ahots doinuaz nauzu gogabera,
nahiera osoan naiz zu ez zaudenean,
malenkonia osoz ohi dizut txera
zure haize-airea ez dabilenean.

Estira behar nuke egonarriduna,
zure galant urdinaz dut beharrizana,
eguzkiz barkabera nire izotz eguna,
hartaz dudan zauriak behar du zugana.

Ai, nire gogabera, nahiera, txera!:
zure mami musuak, nire janaria,
faltan ditut, maiatzez nauzu hilzorian.

Etor zaitez, lorea, bake ematera,
tximista etengabeak nigan isuria
hausnarrari bakea, zure absentzian.

[buztin dut izena]

Nahiz Miguel deitzen nauten buztin dut izena.
Buztina xedea dut eta nire ogi,
mihiaz miazkatuz zikintzen duena,
bidearen lanabes tristea bainaiz ni.
Errespetu gabeko mihi luze zitala
gurtutako oinetan dena zabalduko.

Ur-lehorreko idi gautarra bezala
izaki gurtu izan nahi dut betirako,
zure zapata eta abarren kontrako,
alfonbraz eta musuz sortua dudala
orpo iraingarria lorez laztanduko.

Orpo horzkariari dizkizut ipintzen
nire gisako erlikiak, zure urratseko,
eta zure oinari natzaio aitzindu
zure oin soraioak baitu mespretxatzen
maitasuna oinerantz dizudana hurbildu.

Negar bisaia baino bustiago baitu,
izotzetik ari da ardi beira beeka
leihoa dizunean neguak esteka,
zure oinetara dut hegodun mirotza
hegal orbanduneko lurrezko bihotza.
Zure oinetara dut lore sorta urtua
ostikoz umilduta argizari apala,
mespretxuz hartutako bihotz ihartua
alga itxuraz eta uhin bat bezala.

Buztin hutsal gisa naiz mitxoletaz janzten
buztin hutsal gisa naiz besoez isuri,
buztin hutsal gisa naiz orpotan ausiki,
hegal kolpe eriez dizkizut ematen
zapo horiek, bihotz eroak irudi.

Oinpean badidazu zapalduz ezartzen
zure hatz arrastoa nire gainaldean,
ahoa bitan hertsiz burdin janzki atalak
alferrik galdu eta ditu porrokatzen,
haragi bizi-hutsean,
puskaz diezaiozula zanpa dizu eskatzen
erbi libre-eroaz duzun larruazalak.

Esnegain isila da mordoka ipini,
burmuin artilezkoak dituen arbola
intziriek astintzen dute urratsean.
Bazoaz, eta bere negu-argizaiola
ilunabar aurrean lotu da sutean,
gurpilaren bazkatze, berezi, martiri.

Gurdi eta apatxen ingurumariko
aiztoen menpekoa izateaz uzkur,
larru sugarri eta hatz mendekariko
piztiak buztinetik sortzeko da beldur.

Beldur da ez ote den buztina haziko,
beldur da tanpez ote den goxo igoko
modu ezti-amultsuan
zure ihi orkatila, nire min doluan,
zure hankako nardoz ote den itoko,
are igoz haziko da zure buruan.

Beldur da negu bazter zuri horietatik
altxatuko ote den urakan antzera
trumoi eztandaz eta euria gogotik
gogorki eta samur zure odol gainera.

Beldur, apar minduzko erasoren batez,
maitezko hondamendi soil baten beldurrez.

Lehorteak deusezta dezan baino lehen
bilakatuko zaitu buztinak beraren.

[zezenen maneran naiz]

Zezenen maneran naiz dolu-minerako
jaio, zezena legez nauzu markatua,
saihetsean burdinaz infernuratua,
hankartean fruitua arra naizelako.

Nire bihotz demasak, zezenen gisako,
guztia deus ez dela baitu hausnartua,
maite-potaren punta oinarri hartua,
zure amodioari zezen liskartuko.

Zezen moldean nauzu harrotzen zigorrez,
aho-mihia daukat bihotzez bustia
eta saman daramat enbata goraki.

Zezenen pare zure bide eta zidorrez,
nire desira duzu ezpatan utzia,
zezen txuliatua, zezena dirudi.

Ramon Sije-ri elegia

(Haren eta nire herria den Orihuelan,
Ramon Sije hil da tximistaren moduan,
zenbat gauza maite nituen harekin batera.)

Aspaldi bateko adiskide min,
zure ongarriz bizitu lurrean
ortuzain nahi nuke intziri egin.

Mitxoleta etsiei gose akuilu
paratuko diet zure bihotza
eurite, organo eta kurkuilu,

esku hutsik piztuz nire samina.
Nire saihetseko oinazeak
arnasa ere bihurtzen dit mina

Zaplada dorpea, izotz zartada,
aizkora ikusezin hilgarria,
amildu zaituen pizti bultzada.

Lur zabalena da nire zauria,
deitoratzen ditut makur tropelak,
zu baino hilago nire bizia.

Nabil gorpu hondakinen gainetik,
eta inoren bero-pizgarri gabe
kontuetara noa bihotzetik.

Goizik hasi zen herioa hegan
goizik argitu zen egun-argia,
goizik atzeman du lurrak beregan.

Ez barka herio maitemindua,
ez barka bizitza gisagabea,
ez barka lurra hutsez berdindua.

Harri, tximista, aizkora kirrinkaz,
ekaitz bat dut eskuetan jasotzen,
galmen egarri eta gose kinkaz.

Aztarrikatu nahi dut lurra hortzez,
xehatu nahi nuke lurra puskaka
haginkada bero eta lehorrez.

Miratuko dut lurra zu batzeko,
burezur noblea musukatuko,
ahoa libre, itzularazteko.

Ortu-pikura zara bueltatuko
lore aldamio goietan zehar
aingeruzko ezko eta landuko

zure erlauntz arima txorituko.
Aitzurlari amorosen burdinen
urrumadara zara bihurtuko.

Poztuko da nire bekain geriza
eta zure odola isuriko bitan
zure andregai eta erleen peskiza.

Belus maiztua da zure bihotza,
almendra apartsuzko zelaira hoska,
nire amodiozko ahots zikoitza.

Almendrondotik egiten dizut dei
arrosen arima hegodunetan,
tartea eman behar diegu hitzei,
adiskide, adiskide benetan.

[zureak gabe,
nire begiak ez begi]

Zureak gabe, nire begiak ez begi,
bi inurri metatze bakarti besterik;
nire eskuak dira, zureak gaberik,
azpiratu ezin diren sasitza sorta bi.

Zure gorririk gabe ezpain gabea ni,
kanpandorre gozoez naukate beterik,
zu gabe ez da baino gurutze-biderik,
nardo artatu eta mihilu kiskali.

Zure doinurik gabe non dut belarria?
Zure izarrik gabe galdu dut norantza.
Zurekin egon gabe mehetu zait boza.

Zure haize usainak naiz maiz jazarria,
zure hatzen irudi galduaren antza,
zugan hasia, maite, nigan dadin osa.

Hilen gainean jarrita

Bi hilabetetan isildu diren
hilen gainean jarrita,
zapata hutsak laztantzen ditut,
amorruz, eskuz eutsita
bihotzak duen eskua eta
haren euskarri arima.

Nire ahotsa mendian goiti,
lurrera beheiti dadila,
nire eztarriak eskatzen baitu,
betiro, gaurtik hasita.

Nire oihura hurrera zaitez,
esne bereko herria,
arbola horren erroek naute
zerrapopean itxita,
zu maitatzeko, defenditzeko,
nauzu honaino jalgia,
odolarekin, ahoarekin,
fusil fidelak bailiran.

Sabel batetik jaioa bainaiz,
herri batean hazia,
zoritxarreko eta behartsu,
ahal banitzake balia
zorigaitzaren urretxindorra,
asturu txarren aztia,
entzun behar nauen guztiarentzat
leloa den abestia,
penei buruzko, pobreei buruzko,
lurrei buruzko guztia.

Atzo herria egun-argi zen
ez zuen nola jantzia,
goseti eta zer janik gabe;
eta gaur egunsentia
argitu zaigu zuzentasunez
ekaitzezko odoltia.
Fusil horiek haren eskuan
lehoiak bihurtu dira,
piztia sarri izan direnak
akabatzeko desiran.

Mila botere duen herrian
armak faltako balira,

hezurrak zutik, har dezatela
mintzen zaituztenek mina,
bai baitituzu azazkal, listu,
eta goiti ukabilak,
bihotza, tripak, mami-erraiak,
gizonki eta haginak.
Haize harroa bezain harroa,
arina bezain arina,
hiltzailea hil ezazu eta
higuin ezazu higuina,
gorroto dute bihotz bakea,
eta emeen sabel muina.
Aurpegiz beko bizi, bizkarrez
ez zaitzatela fusila,
balen aurrean bularra ezazu
horma gisako harria.

Nire herria, zure heroiez
kantuan dut dolumina:
bion desio, bion ezbehar,
bion negarren zotinak
goritasunez berean daude
bera baitute burdina;
zure ideiak, nire kopeta,

egur berberaz eginak,
zure bihotza, nire odola,
bion ereinotz samina.
Ezerezaren aurrekaria
iruditzen zait bizitza.

Arima dantzan den bitartean
hementxe daukat bizia,
eta garaia heltzen denean,
hor izango dut hobia,
populuaren ur-lasterretan
betiro, gaurtik hasita.
Trago ugariz bizi naiz eta
bakarraz izanen hila.

[herri haizeek naute aitzina]

Herri haizeek naute aitzina,
herri haizeek herrestan.
nire bihotza dute hedatzen,
zintzurra ere haizetan.

Idiek behera zimurtzen dute
inpotentziaz kopeta
zigor ematen dietenean:
lehoiek, aldiz, gora eman,
eta kontrara zigortzen dute
atzapar itzelen pean.

Nire herrian idirik ez da,
ugari dira, bestela:
lehoi askoren bizi habia,
arranoak harkaitzetan,
arrandiadun adarrak ditu
gure mendiko zezenak.
Sekula ez dira idiak hazi
Espainiako mortuetan.

Nork nahi lezake uztarria lot
arraza honen zintzurretan?
Nork ipini du urakanen bat
uztarpe edo estekan?
Nork sar lezake tximista preso
kaiola baten barnean?

Euskal jendeen harri gotorra,
kuraia asturiarrena,
lurra bezala goldeak jota
gaztelauen izaera
hegalen moldez haizez beterik,
valentziarrak alegera,
tximista dute andaluziarrek,
jaio ziren gitarretan,
goian-behean malkotan diren
ingudeetako garretan;
zekalezko extremaduratar,
galiziar euri baretan,
aragoitarrak zuretik ezpal,
irmoa katalanetan,
murtziarrak dinamita zabaltzen
fruta banatu maneran.

leondar, nafar, gose-izerdi
eta aizkoren jabeak,
nagusi dira meatzaritzan,
lugintzan diren behinenak,
errotutako gose horrekin
sustrai lerdenen antzera,
bizitik heriora zoazte,
ezdeusetik ezdeusera:
uztarrietan nahi zaituzten
belar gaiztoko jendeak,
utzi beharko dizkiezue
sorbalda hautsien gainean.

Idi garaien ilunabarra,
eguna argitzen hasten da.

Idiak hiltzen dira ukuilu
usain apalen janzkeran:
arrano, zezen, lehoiak berriz,
harrokeria betean,
zerua ez da lausotzen ezta
bukatzen haien atzean.

Idi direnen hilzoriak du

musua oso txikerra,
animalia arrenak aldiz
guztiz puzten du sortzea.

Hil behar badut, izan dadila
burua goraka hegan.
hilda ere, behin betikoz hilda,
ahoz aho belarretan,
kinka izango dut hortz-haginetan
adorea bizarretan.

Kantatzen nago heriotza zain,
urretxindorren antzean,
kantuz fusilen gainean eta
gudaren erdigunean.

Haur itzaina

Uztarri bazka da jaio
umildua ederra baino
lepoa du jazarria
lepoan du uztarria.

Tresnen moduan sortua,
kolpez kolpe gogortua,
pozik ez duen lurrean,
asegabeko goldean.

Gorotz bizi eta hutsean,
idien simaur artean,
bizira arima dakar,
olibazko, gogor, zahar.

Hasi denez hasi arnasten,
aldez alde hiltzen hasten,
lurraren azala gora
uztarriaren ahora.

Hasi denez hasi doluz,
bizitza gerraren moduz,
lurraren hezur-muinetan
uztarri-kolpe neketan.

Zenbat urte dituen ez
daki, eta badakienez
luginak koroa gaitza
duela izerdizko gatza.

Lanean ari, lanean
gizon serioen antzean,
hilobi haragiz edertuz,
euri olioz ugertuz.

Zarten indarrez, indartsu,
eguzki zartaz, dirdaitsu,
herioa du irriketan,
ogi urruna pusketan.

Egun bakoitza harago
sustrai, sorkari honago,
aditzen du oinpeetan
hilobia eleketan.

Sustraia legez lurrean
behera modu barean,
lurrak diezaion kopeta
bake-ogiz asebeteta.

Min dut haur goseti hori
arantza itzela iduri,
bere bizi errauts-kolorez
nire arte arima dolorez.

Hortxe dut galtzu goldean,
ogi mokorra hortz aldean,
begiekin hitz lardaska
zertaz den uztarri bazka.

Bular zarta dut goldea,
zintzurrez bizimoldea,
haren oinpean lugorri,
sumindura zait etorri.

Olo alea handixko du,
haurra nork salbatuko du?
Mailua nondik jalgiko,
katea duena hautsiko?

Jornaltiarren bihotzean
pitz dadila oroitzean
gizonak baino aurrena
haur itzain izan zirena.

Olibazaleak

Jaengo andaluziarrok,
olibazale gorenak,
nor ote oliba adarrok
gora altxatu zituztenak?

Ez zen ezerezez izan,
ez diruz, ez ugazabez;
lur isilaren gerizan
izerdiz eta beharrez.

Ur hutsarekin harreman
eta planetei eskerra,
horiexek zieten eman
enbor okerroi ederra.

Jaiki, olibondo zaharra,
haize azpian eraso.
Erro-sustraiez azkarra,
arbolak eskua jaso.

Jaengo andaluziarrok,
olibazale gorenak,
nor ote oliba adarrok
edoskitu zituztenak?

Zuen odolaz, bizitzaz
izan baitzen, ez bestenaz,
izerdiaren zauritzaz
aberastu jabeenaz.

Ez zen izan pobrezian
lurpetu zintuztenena,
buru-kopetak sasian
murriztu zizuetenena.

Arbola egun-muin baitzen,
zuen grinen adierazle,
bestek soilik jango zuen
ogiaren sorrarazle.

Olibondoz mendeetan,
oin-eskuak estekatuz
eguzki-ilargietan,
zuen hezurrak zamatuz!

Jaengo andaluziarrok,
olibazale gorenak,
nor ote oliba adarrok
bere hartu zituztenak?

Jaen, harro zaitez bertan
ilargi harrion inguru,
ez duzu morroia zertan
olibondoez mukuru.

Olioaren lurrinez,
bere baitan argituta,
muinootan duzu zinez
libertatea neurtuta.

Izerdia

Urak itsasoan du paradisu gosea,
izerdiak han ertza, burrunba eta luma.
Izerdia da arbola gazi bridagabea,
olatu goseduna.

Munduaren adinik urrunenetik han da
edalontzi astindua lurrari eskaintzera,
egarria eta gatza eustera tantaz tanta,
bizitza argitzera.

Larrainetan herrestan, higiduraren ume,
ekiaren kusina, malkoaren senide
apirilak urrira, neguak udara arte,
huntz urrekarak daude.

Laborariak datoz egunsentia tarte
giderraren fabore atsedena erantziz,
urrezko atorra isila soinean daramate,
izerdi isilaz jantziz.

Langileen urrezko beztitzeko manera,
esku-begininien edergarri apainak.
Besape euriak ditu zabaldu eguratsera
joritasun usainak.

Aberats heldu dira lurraren zaporeak:
negar lantsu usaintsuen maluta eroria,
kopetaren edari, gizonen laboreak
duen mama joria.

Izerdiz inoiz ari ez zaretenok, zurrun
beso gabe zaudete, poro, musika gabe,
poro irekien aura beti duzue urrun,
zezena da mirabe.

Kirasdun bizi eta ilun zarete hilen:
izar multzoen pare adar latzetariko
gorputzen orpoetan bizi-bizi dabilen
ederra da biziko.

Kopeta eman lanari, ene adiskideak:
kristal zaporetsuzko bere ezpataren zaingoz
uholde geldoekin, zortedunak, kideak,
garden zaituzte egingo.

Senar soldaduaren kantua

Maitasun eta haziz erein dizut barruna,
erantzun zain ildoan goldearen antzera,
ahalik luzeen den odolezko oihartzuna:
heldu naiz sakonera.

Dorre altuko ile-beltz, argi-begi nagusi,
nire larruko emazte, bizi zurrut azkarrak,
orein jaio berriak legez nigana jauzi
zure zoro bularrak.

Kristal hauskorra zara iruditzen zaidanez,
oztopo txikienaz ote zaren hautsiko;
nire soldadu larruz, gerezien emanez,
zure zainei eutsiko.

Nire haragi ispilu, hegalen habe zuta,
hartu gabe eman dizut heriotzan bizia.
Emazte, maite zaitut, balaz inguratuta,
berunak gutizia.

Hilkutxa zelatari oldarkorren gainean,
etsian hilobirik gabe hil direnetan,
maite zaitut, sabelaz musukatu xedean,
emazte, eta hautsetan.

Nire kopeta zutaz oroit gudu lekuan,
zu ahanzteko eta epeltzeko etsiaz,
nigana zatoz aho neurrigabe moduan
hortz-hagin gosetiaz.

Idatz borrokaldira, lubakian sentituz:
fusila dut gomutaz zure izena deitzen,
zain dudan zure sabel pobrea defendituz,
semea defenditzen.

Ukabila itxita semea da jaioko,
garaipen-gitarretan egingo du deiadar,
nire soldadugoa zure atean utziko,
ez betortz ez atzapar.

Bizitzen segitzeko hiltzea premiazko.
Joango naiz zure ile urrunaren itzalez,
zure eskuaz ehundu almidoi-zaratazko
izararen logalez.

Zure hanka gotorrak doaz prest erditzera,
ezpain hezigaitzeko gupidabako ahoaz,
eta leher-zaurien bakardade aitzinera
musu errukigabez sortu bidean zoaz.

Langai dudan bakea semearena izanen.
Hezur konponezinen itsaso batez, hona,
gure bi bihotz hauek urpez dira joanen,
musuek maiztutako emakume-gizona.

Gosea

I

Hona gosea, oroit bere harat-honatak:
berunezko jornalen kapatazen goldea.
Odolaren prezioz jasotako soldatak,
ariman uztarria, sorbaldetan kolpea.

Behi mengelak zebiltzan gosearen eskutik,
emakume idorrak, ugatzak esne faltan,
masailezurrak gose, bizierak larrutik,
jangela eta gorputz ugariekin talkan.

Jauntxo izenekoek baino ez zituztenak,
aberastasun urte, asebete oparo.
Hemen gara, hemen naiz, dezan ogi zuzenak
pobreenen gosezko hortzerian abaro.

Aurkari haien gisako ezin baikara izan,
bizitza dutelako odol harrapakina:
hortzez irentsi gogoz, marrazo horien gisan,
mundua gosez gura duten panteren dina.

Gose urte izan dira pobreentzat urteak.
Besteen gehigarri ziren beti ogiak.
Belez, kurrikez, otsoz, alakranez beteak,
gosearen otsodun artalde harrapariak.

Goseti naiz gudukan goseak sorturiko
ordain, marka, oroitze, zauri, arrakaletan:
zerrienen gisako zerrien jatorriko
hainbat sabel aseren kontrako borroketan.

Zerriak laket diren kortatik beherago
gizendu zaretenez hain doilor eta salbai,
uholde handi horrek zaituzte eramango,
galburuak garretan, ukabil gorak zemai.

Milioika jornalari umeren negarretan
apropos belarriak dituzue tapatu.
Zaunkaz zuek, goseak zuenez zuen atetan
argi zuloetako zirrikituz eskatu.

Etxean gorrotoa, pikondoa nolatan,
adar dardaratizko zezenaren beldurrak,
teilatuan abiatuz, setiatuz zelatan,
adarkadaz hondatuz, hilzoriko zakurrak.

II

Ezagutzen lehena izan ohi da gosea:
gose izatea da lehen ikaskizuna.
Urdaila abiapuntu den tokitik pasea,
sentimendu oldarra piztu izan diguna.

Gogo zauririk gabe txoriak hiltzekoak
inoiz izan ohi gara giza miserableak:
xalotasunaz baino ez dakiten usoak
elur hotzez itotzen uzteko kapableak.

Muturretik ari zait aberea xaxatzen.
Nire indar-pasioz piztiaren taupada.
Tartean azkeneko indarra dut saiatzen
lehoien bozak nigan jaso dezan patxada.

Harro naiz naizelako bizitzako piztia,
giza animalia nahiago dudan arren.
Soinean bilatzen dut baliotasun goitia,
ostatua duena hainbat sasiren barren.

Goseak du pertsona labirintora biltzen,
bizitzak han du egoitza bakartasun ankerraz.
Itzultzen da piztia, bere sena berritzen,
bere hanka laztuez, bere isatsaz, herraz.

Bazter ditu ikasgaiak eta jakinduria,
mozorroa kentzen du, kultur larru gorria,
zientziaren begiak, bertan da isuria
ezagutzaren larru berandu etorria.

Gaizkian da jakitun, ezerezte denetan.
Gasak asmatzen ditu, hondagarriak jaurti,
apatxera itzuliz, uzkurtuz betortzetan,
bazkatzeko tokien aldera egin du jauzi.

Piztiak lez dihardu, koilara are gorago
jendea mahai ondotik alden dadin abisu.
Munduan tigre aldra bat besterik ez dago,
begietan dut bista mingarri eta pisu.

Nire ariman ez da tigrerik abantadan,
txakal etxeraturik; niretzat den ardoa,
ogi, egun, gosea parteka ez ditzadan
beste goseak zintzo hartutako ahoan.

Lagundu ni izaten: piztia izan ez nadin,
goseti, errabiatsu, betirako setioz.
Nik, famili abere, odolean behargin,
nire kantan bide den mundua dut desio.

Zauritua

Odol ospitale bateko murruari

I

Borroka zelaietan ugari zaurituak.
Gorputz gudularien luze-zabal hartatik
jario beroetan galsoroa sortzen da,
marrantaz iturriak.

Odol euria beti aratinik zerurantz.
Amets egin zauriek, itsas kurkuilu gisa,
hegaldatzeko presa denean ebakian,
olatuen mamia.

Itsas usaina odol, itsas soto kutsua.
Itsas ardo latzaren sotoa lehertzen da,
zaurituaren taupadak duelarik gainezka,
onera da loratzen.

Hara, zauritua naiz: bizi gehiago behar.
Daukadana gutxi da, zaurietatik galdu
gura nukeen odol xedea betetzeko.
Nor ez dute zauritu?

Gaztaro loriatsuz zauritu zait bizitza.
Gaixo zauritu ez dena, inoiz sentitu ez bada
bizitzak zauritua, bizitzan ez badabil
pozarren zauritua!

Ospitaleetara pozik ere joan ohi da,
zauri zabalen ortu bilakatu izan dira,
kirurgia ostean heriotzorri lorez,
odoldutako atetan.

II

Libertateen alde odolez, gudan, bizi,
Libertateen alde, nire begi-eskuak,
haragi arbola preso, jori ditut ematen
ebakuntzetarako.

Libertateen alde hondarren ordez ditut
bihotzak bularrean: nire zainak aparrez,
ospitalean barna, kotoi artean sartzen,
azuzenen moduan.

Libertateen alde bere figura lohian
iraulkatu duena balazoka utzia.
Eta kolpez lagatzen nire esku-besoak,
nire etxea, guztia.

Hutsik lotuko diren zulotxo horietan
bi harri ipiniko, etorkizun begiak,
beso-hanka berriak haziko dira bertan,
haragi ebakian.

Zauriz galtzen ditudan nire gorputz hondarrek
kimuak dituzte hegan udazken bako izerdiz.
Zuhaitz moztuan legez sortzen zaizkit kimuak,
bizi bainaiz oraindik.

Kartzelak

I

Munduaren hezean narras dira kartzelak,
epaitegietako bide ilunez doaz;
pertsona-herrien xerkan, jazarrian dituzte,
irentsi eta xurgatuz.

Ikusi barik entzun metalaren malura,
azpian listukatzen duten burdin negarra:
epaileen gaineko ezpataren lantua,
zementu lohitsua.

Hor behean kartzela, intzirien ekoizle,
antzu izango ez den malkoaren sarea,
esperantzaren eta gorrotoen larmintza,
hondora, sortu, eho.

Eperrak direnean marrantaz eta kartsu,
hedatzeko indarrez urdin maitemindua,
argiaz eta lurraz oroitzen da pertsona,
hezetasunean beltz.

Harrien kontra eguna eta libertatea,
pertsonaren urratsa lauhazkan da, burua,
lerdea du ahoan, lerdeak gidatzen du,
libertate, pertsona.

Lumen hazitegia duen bihotz hartatik
haizeen uzta bota eta biltzen duena:
edozein izotzetan pertsona bera han da,
edozein leotzetan.

Itsas urekin amets egin duen pertsona,
tximista lotuak lez hautsi ditu hegalak,
burdinak dardaratuz, hortzak iltzatzen ditu
trumoiaren hortzetan.

II

Borroka ez da hemen idi ahituen alde,
zurda usteldutako zaldien alde baizik,
apatx azpian sutsu usteltzen den lauhazka
sendi duten zaldiok.

Garbitu masailetik darien listukada,
eragin ezazue munduaren bihotza,
aldendu espetxeak eguzkia ilun den
espetxe irensleetarik.

Jabeak baino morroi direnen mingainean
lumatuta usteltzen dago libertatea.
Hautsi kateok, baita esklaboen atzean
ozen direnak ere.

Ez besteren, norbere espetxea utzi nahi
dute, norbere zoko edota lokarria,
eta lortutakoan, lumaz luma beheratzen
dira, lizun, herrestan.

Betidanik betiko kateatutakoak.
Pertsonak soilik daki libre izatea zer den:
neu banengo gisako ziega horren barruan
gogo dudan pertsonak.

Itxi ateak, itxi kisketa, kartzelazain.
Gotor lot gizon hori: arima ez ordea.
Hamaika dira giltzak, trabak, bidegabeak:
ezin arima lotu.

Kateak, bai: odolez behar ditu kateak.
Zain burdina beroak, odol katebegiak,
pertsonaz lotutako katemailak daitezen
elkarrekin uztartu.

Erremedio gabe putzu barruan dago,
artegatsu, zirraraz, belarria emanda.
askatasuna! oihuz herria, hura gorantz.
Hegan dira kartzelak.

Zaurituen trena

Isilik hondoratzen den isiltasuna,
gaueko aho itxien isiltasuna da.
Ahoz hartuta ere isilean dena.
Hildakoen hizketa etena mintzo da.

Isiltasun.

Sakoneko kotoizko bideak urratuz,
mutu dira gurpilak, erlojuak mutu,
uso-itsasoaren boza geldiarazi:
ez dezala ametsen gaua hunkiarazi.

Isiltasun.

Odol deslaia eta euria den trena,
odolusten direnen tren apurterraza,
isilkorra, zurbila, oinazegarria,
sufrimenduetako tren soinu gabea.

Isiltasun.

Gorako zurbiltasun hilgarrizko trena:
buruak gaineztatzen dituen zurbila,
aienea, ahotsa, bihotza, zorua,
larriki zauriturik diren bihotzena.

Isiltasun.

Isuriz doaz hankak, besoak, begiak,
puskak botatzen dira trenetik behera.
Mingostasun hondarrak barreiatzen dira,
izarrezko adarren beste esne bidea.

Isiltasun.

Kemengabeko trena, erlats, gorritua:
hilzorian ikatza, hasperenka kea
eta lokomotora, amaren antsiaz,
etsipen luze baten gisaz aitzin doa.

Isiltasun.

Ama handiak nahi luke, tunel baten pean
gelditu, eta negar-zotinka ari izan.

Pausatzeko tokirik, geltokirik ez da,
ospitale edota bularra ez bada.

Bizi ahal izateko, puska bat aski da:
haragi ertz batean inor kabitzen da.
Hegal zati bakarraz, atzamar bakarraz,
gorputz oso bat hegan goraka hasten da.

Isiltasun.

Geldi ezazue tren hilzorizko hori
gaua etenik gabe zeharkatzen ari.

Zaldia bera ere hanka-hutsik lotu da,
hatsa eta apatxa hondarreztatuta.

Argiaren eta itzalaren seme...

I. Itzalaren seme

Gaua zara, emazte: eme ilargiaren
indar handieneko gautar estadioa.
Gauerdia ere bai: loaldi gorenaren
itzalgune gorena, goren amodioa.

Egunak gorituta, bihotz kiskalgarriak
eguzkitik noranahi darama urrats ziurra,
bulkada sendo batez, argi goragarriak,
mendietako eta iluntzeko gailurra.

Gauak bere erakarpen botere mina bota
duenean jausiko naiz zure gorputzera.
Sukar izarretako sentipenak nau jota,
hezurrak sutzen dizkit, hotzikaraz batera.

Gau aireak bularrak dizkizu porrokatzen,
eta gorputzak nahas irauli euren kolpez.
Bikoteak lausotu, bateko bilakatzen,
ohantze zoratuen ekaitzak duen moldez.

Garraldi mineralen eta bulkada ilunen
su isil bat bezala piztu berri da gaua.
Nola putzu-ardoen arima hedaturen,
hala inguruan du itzalen alaraua.

Jada itzala habia itxia da, suharki,
maite duenarengan itsutasun zuria;
besarkada estua eraginez, itsuki,
bere kobetan bilduz argiak isuria.

Itzalak ditu eskatu, izaki elkar-lotuak,
oinaztura luzeez blaituko duten potak,
harrotutako ahoak, astindu-hertsatuak,
lo mutuez musika dagiten urru motak.

Eskatzen du gautzala biok manta gainean,
biok ilargiz gaindi, biok bizitzaz gora.
Eskatzen du dugula, izarrekin batean,
lur izutua urtu sutan dugun ahora.

Izarrak batzen diren itzalean semea,
amodio, hezur muin, ilargi, ilun argia.
Nagietatik eta kobetatik ernea,
bere hiri bakarti-beheetatik jalgia.

Itzalpean semea: itzalak aupa dio,
argizagiek sortzez uzta ematekotan,
esnearen zukua, bihotz bero jario,
hezurrak behartzeko emetan eta lotan.

Itzalak dantzan ditu izarloken indarrak,
itzal ospela hedatzen duen izartegia:
lehen bikotekideak, orain andre-senarrak.
Gaua zara, emazte. Ni nauzu eguerdia.

II. Argiaren seme

Goiza zara, emazte: argiantz larrietan,
kopetako orduak bil-bil dituzu hartu.
Eki sortu berria galdaz zure erraietan.
Dirdaiari emana gorputza dizu klartu.

Argien erdigune, ordu goia duzu zain
sua bera kiskaltzen duen sute ertzean:
geure etxea jarriz argigunean ertain,
zure esperoan naiz gariaren moldean.

Putzu ilunetatik irten arrats behera,
murgiltzen da sustraiak ernai diren putzuan.
Harrizko molde hauskorrak porrokatu antzera,
murgil egiten duzu erditze argitsuan.

Erditze ordu gorena, ordu biribilena:
zure orroa entzunda erlojuen eztanda,
munduko ateak albaz zabaltzen direnena,
zure sabel habian ekia bera han da.

Zure esku sakonez, bihotz sakonaz josi
arropa-itzala izan zen semea lehenbizi.
Arropa-itzalez zuen bizia aurreikusi,
Arropa-itzalez giza ernamuinetan bizi.

Itzal-arropa hutsak, biztanlerik gabeak,
ume builatsu batez, kulunkaz dira indartu,
zabal-zabalik utziz gure etxeko ateak,
aulki distiratsua txilioka du hartu.

Ai, bizitza: zein pena eder eta hilurrena!
Itzal-arropak zure seme horrek bezala.
Itzal-arropak jantzi pertsonek hor barrena.
Beti gainez itzalak: arropa eta itzala.

Goizaren seme zara, eguerdiaren seme.
Denean den argia utziko duzu hondar,
zure ama eta biok hiltzear goaz, ene,
lo-itzarrian hainbat maitasun gure bizkar.

Mintzo naiz eta hatsez bihotza zait atera.
Maite dudana isilduz hura itolarria.
Erretxina-izpilikuz lurrindu dizut gela.
Goiza zara, emazte: Ni nauzu eguerdia.

III. Argiaren eta itzalaren seme

Bi abaraska oroit, goizalban ehundurik,
titiburuetatik eztia lehertzear.
Isurki zuriekin borrokan presaturik,
zure bularrak goizez: iturbegi amatiar.

Zure ilargi zainak, gainez dira, emazte,
zure kutsuz bete den etxea ito arte.
Aparrezko esnea duen erlauntz borraste,
erlauntz hiri batean jaiotakoen pare.

Zure odol guztia gozotasun hutsa da,
izerditu dituzun erle finen antzean.
Jario ozenez ari zaigun esne bafada,
itolarriz ezkonduz zerorrekin batean.

Andre jariotsua: zure sabela hobi.
Sabel jariotsuan natzaizu lurpetuko.
Nire hezurrak balira burdina garrez gori,
zure margo itxurak bertan bistaratuko.

Bat eginik betiko, bat eginik semeaz:
gure nahi gosetien irrikek bat eginik:
sorta batez bi sorta, astiz, odol emeaz,
laztanez eta ilez, biak bereizi ezinik.

Zenduak biziekin modu egoskorrean
taupada biziz sute izoztuaz kiskaltzen.
Nahiz guk etxea utzi, ginen handik hurrean,
etxe eta zelaiak semeak ditu hartzen.

Gure semea jaki iturburu da izanen,
gure haragia du premiazko bihurtuko,
esku-hatsek arima bertan pausa dezaten,
helizeak biraka, ortua bizituko.

Berari esker bizi hau ez zaigu amilduko,
gure bi txataletik etorritako txatal,
aho bioz ezpata bakarra du landuko
eta lau beso ataloz betirako bi atal.

Ez zaitut maite zeurez: etorkiz zaitut maite,
eta zure baitatik sortuko denaz ere.
Giza espeziea baitu semeak senitarte,
giza espeziea baitut utzitako ondare.

Maitasuna lepoan, itzarrik gaude lotan,
seme sakonean da musu hauen segida.
Gure hilak musuka guk musukatzekotan,
munduko aitzin jendeak ere musuka dira.

[ez beste argirik,
zure gorputza nire aurrez]

Ez beste argirik, zure gorputza nire aurrez:
klartasun absolutu, osozko gardentasun,
egunekin irmotuz, ibai hondoa legez,
odolaz barrentzen den muineko araztasun.

Egunsentiko bihotz, haragitze goizduna,
gai argi iraunkorrek egin zaituzte hola?
Gogo dut zure bular-arnasaren eguna.
Inoiz bukatzen ez den goiza zure odola.

Zure gorputzaz kanpo ez da argi: dena laino.
Zure kopetak soilik argitzen dizkit soak.
Beste argia ez da zure oin mamu baino.
Sortaldean dituzu begi hondobakoak.

Itzali ezinezko argi. Gailur hori utziko
eta etsiko ez duen distirarik gorena.
Gaztea. Izpiduna. Argia. Gar txikiko
izarrik urrunenak dakarzkien gardena.

Bero ernalgarrizko gorputz ilun argia.
Belar beltza lokiak; belar beltza sorburu.
Beltza dut begirada, urrunera begia.
Egun urdin. Gau klaru. Itzal argiz aiduru.

Ez beste argirik, zure urre itzala besterik
non belar ilunetik uztaiak diren sortzen.
Odolean, zureaz egiazki errerik,
betikotzen zait gaua, eguna betikotzen.

[arropetan urrina]

Arropetan urrina,
lurrina oihaletan.

Urrun haren gorputza,
soinekoak bertan,

ohe bero gabea,
izara itzaletan.

Gorputzez urrundu zen.
Dirau janzkietan.

[musuaren bipilak]

Musuaren bipilak
aldez alde hunkitu zituen hilak.

Musuaren kemenez
biziei ahoa kendu zienez.

Musuaren gorena,
labur ziren ezpainak ahoan behera.

Musuaren nahiera,
biziak erein eta hilak lurpera.

[hiru zauritan doa]

Hiru zauritan doa:
bizitzekoa,
maitatzekoa,
eta hiltzekoa.

Hiru zauritan dena:
biziarena,
hiltzearena,
maitearena.

Nator hiru zauritik:
maitasunetik,
heriotzatik,
eta bizitik.

[zure begia nire begitik]

Zure begia nire begitik
itzuri ostean, itzultzen,
eskas direnen mortu horretan
zehar ibili ondoren.

Zure ahoa berriz da bueltan
nirea utzi eta gero,
oraindik hegan nahi luketen
musu hilak direlako.

Zure besoa niretik jausi
geroztik berriz goititu,
zure baitako atsekabeaz
gibelera egin baitu.

[gerra tristeak]

Gerra tristeak
amodioa ez bada haien xedea.

Triste-tristeak.

Arma tristeak
arma horiek hitzak ez direnean.

Triste-tristeak.

Gizon tristeak
hiltzen ez direlako maitasunean.

Triste-tristeak.

[zure sabelaz beste]

Zure sabelaz beste
oro da nahasia.

Zure sabelaz beste
geroa da hasia,
iheskorra, joana,
lugorria, sasia.

Zure sabelaz beste
oro da estalia,
zure sabelaz beste
ziurrez ebatsia,
mundu gabeko hautsa,
geroaren hazia.

Zure sabelaz beste
argiz galarazia,
sabel argiaz beste
sakonez itsatsia.

Gorrotoaren aurretik

Musua nauzu, itzalez itzal.
mindura mineko musu,
bihotza eskas duen bihotza,
naizenez enamoratu
kreazioan diren hats-gauza
itzal gabeez hain justu.
Urrun den uraz egarriz eta
egarriaz naiz mukuru.

Bihotza barne duen koparen
edale bakarra nauzu,
inork ezin du nitaz aparte
haren zukua dastatu.
Bizi, gorroto: gorrotorako
amodioa baino ez dut.

Irrika handieneko grinak,
desio handieneko su,
grinak emandako eskuekin
ezin laztanduko zaitut.
Hainbeste hegok, zenbait hegaldik,

eraisten dituzte egun,
burdinaz hesitutako zainak
dituzte herraz horzkatu.
Amodioz, bizitzaz, hil dute,
ezinbestean hegaldun,
amodio hutsez dute gorroto,
amodioa baino ez dut.

Maitea, ni naiz beti behean,
laztana, goian sabai zu,
klartasunezko irrika hauek
argi soil baino ez ditu.
Txistukatua, berorik gabe,
katetan ikus nazazu,
berehalakoan etorritako
ilunpe odoltien esku,
ogiaz eta labanez jaten
langile onaren moduz,
labana soilik daukat aldizka,
amodioa baino ez dut.

Den-dena: enara, gora joate,
hedadura, argitasun;
den-dena: aire, eguzki-begi,

espazioaren aiduru;
den-den denaren esanahia
bazter batean lurpetu.
Sasiarte, itsaso, mortu,
odol, mendi ibildaun,
maite grinazko orroz ari den
arimako askatasun,
nire gorputzaz gaindi doazkit,
ez dira bertan gelditu,
baina bertatik hedatzen dira,
amodioa baino ez dut.

Katebegiko lore girnalda
beltzuri horretan barru,
kartzelazainen kutsu jarraiaz,
fusilatze hormaz salbu,
amildegiko ertzean baina
libre naiz, alegera, altu,
alegera naiz, altu eta libre,
amodioa baino ez dut.

Gizonak ez baitu kartzelarik,
ezingo naute erraz lotu.
Kate mundu hau txikerra eta

kanpokoa iruditu.
Nork giltzapetu irribarre bat?
Nork ahotsa harresitu?
Heriotza baino bakarrago
urruti zara baratu.
Urruti zaude, zure besotan
presondegia sentituz,
beso horietan gure askeak
taupaka egiten baitu.
Libre naiz, hala senti nazazu,
Amodioa baino ez dut.

[uretik hurre]

Uretik hurre eramango zaitut,
zure urruma itsaso nahi baitut

Uretik hurre zaitut atzemango,
haren izaki karrak hats emango.

Uretik hurre zarela nahitasun,
bitsetik barreka ikas dezazun.

Uretik hurre, andre, zaitut gura,
begira, ezagut, ernal, ingura.

Uretik hurre, galdu-topatu ezin
den itsasoan zaitezen helezin.

Tipularen sehaska kanta

Izotz estu-pobrea
duzu tipula.
Izotzez nire gaua,
zure eguna.
Tipulaz gose,
intzigarrez, izotzez,
jan eta ase.

Gosearen sehaskan
nire ninia.
Tipulodolez hartzen
zuen titia.
Zure zainetan,
azukrez izoztuta
tipul gosetan.

Emakume belxkara,
ilargiarena,
sehaskan tantaz tanta
isurtzen dena.
Irri egizu,
eta jan ilargia
behar baduzu.

Larratxori nirea,
irri joritan.
Begietan irria,
mundua argitan.
Irritan erruz,
ariman talka zure
irrien erruz.

Libre egiten nauzu,
hegaldaraziz.
Bakargabetzen nauzu,
kartzela erauziz.
Ahoa hegan,
tximistetan bihotza
zure ezpainetan.

Ezpainetan ezpata
irri goitzaile,
lore eta txoriez
zara garaile.
Eguzki kontra.
Hezur eta maitezko
nire erronka.

Haragia dardaran,
betazala zut,
kolore bizikoa
ikusten zaitut.
Txori ugari
zure gorputz txikitik
hegazka ari!

Ez egin nik bezala,
haur, ez itzarri.
Triste da nire ahoa.
Irri egin sarri.
Sehaskan zaude
lumarik luma beti
irrien aldez.

Hain gora hegaldia,
hain hedatua,
zure haragiz zeru
gainbehatua.
Zure laineza
horren sorbururaino
jo ahal baneza!

Zortzigarren hilean
bost lili berri.
Bostak txikiak bezain
ikaragarri.
Bost hortz dituzu
jasminetan loratzen
ematen duzu.

Bihar izango dira
musuen traba,
arma bat sentituko
hortzetan barna.
Sua engoitik
muinerantz jaitsiko da
haginez beheiti.

Titiz hegan egizu
ilargi bitan.
Haiek, tipulaz triste.
Zu, poz irritan.
Burua jaso.
Ez axola zer gerta
eta zer jazo.

Egarri denaren qasida

Basamortu harea
naiz, egarri arloa.
Zer edanik ez didan
oasi zure ahoa.

Aho: mortu guztia
alez ale aurrez duen oasia.

Ez baitugu biona,
gorputz zure-zurea
den mundu sutu horren
erdigune hezea.

Gorputz: putzu kitoa,
egarri eta eguzkiak itoa.

[bizi banaiz, hobe]

Bizi artean lasai,
herioan jabe;
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.

Ez naiz zekale lili
haizearen menpe.
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.

Beltzaran eta bizi,
leinuaren alde.
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.

Trumoi edo tximistez
beldur izan gabe.
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.

Doilorrek pozoitu nahi,
adoretzen naute.
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.

Bihotza dut osoki
dirdai alaiz bete.
Hiltzen banaute, ongi:
bizi banaiz, hobe.